



Gure Nahia Elkartea, Gipuzkoako gaixotasun arraroak dituzten haurren eta haien familien aldeko elkarte da. Bere helburuen artean behar dutenei laguntza eta informazioa ematea, eta ikerketak ahalbideratzeko ekimenak egitea nabarmentzen dira.

Gure Señeak Elkartea gaixotasun arraroa edo ezintasun haundia pairatzen duten neska-mutil eta bere familiei babesa eta laguntza eskaintzeko sortutako elkarte da.

09 GURE NAHIA ETA GURE SEÑEAK Elkarteekin solasean:

Kasualtaterik ez dago. Denaren beharrean dagoenak, guztiarekin esaten digu zerbait: baita izenarekin ere. Nahiak bazuen bizitzeko gogo, eta haren familiak bazuen Nahiari bizitza hobetzeko esperantza.

Nahiaren inguruan sortu zen Gure Nahia, baina egun, hainbat umeri laguntzen die bizi baldintzak hobetzen.

Berdin Gure Señeak elkarteak ere: hasieran ume bakarraren inguruan sortu arren, orain askotariko gaixotasun arraroak dituzten umei laguntzen die.

Señea haurra edo etxeko kuttuna da Bizkaiko leku askotan. **Gure Señeak:** gureak, guztionak. Edonor egon

daitekeelako ume horiek dauden egoeran, eta haien bizitza errazten dugun neurrian, geurea ere hobetzen dugulako. **Gure Nahia:** guztiok nahi dugu gure ingurukoek, batez ere zaurgarrienek, bizitza duina izan dezaten.

Gureak dira señeak eta gurea da nahia. Guztiok nahi dugu gure señeen bizitza oztopoak gainditzeko maratoni bat ez izatea. Guztiok nahi dugu gure señeak, gaixorik egon edo ez, onartuak izatea.

-Elkarteari esker, etxeko seña izatetik, herriko seña izatera pasatu naiz. Eskerrik asko.



AUKERA BATEN BILA

10 IZAN GURE LAGUN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Onintza Enbeita Maguregi

Ahotsa: Alex Sardui

Ttan, ttan, ttakun, izan gure lagun
elkar ezagutu dezagun.

Ttan, ttan, ttakun, izan gure lagun
badugu aski gaitasun.

Diagnosi arraroa izan arren oso arruntak gara gu
jolastea maite dugu guk ere amets handiak ditugu.

Ttan, ttan, ttakun, izan gure lagun
gure ahotsa ere entzun
ttan, ttan, ttakun, izan gure lagun
hurbil sentitu zaitzagun.

Eskuz esku seña bakoitza, seña guztien nahia bete arte
borobilean, herrian, lekua dago ume guztientzat.

Ttan, ttan, ttakun, izan gure lagun
geroa ez dago hain urrun
ttan, ttan, ttakun, izan gure lagun
bidea egin dezagun.

Ez badute gertatzen zaiguna ikertu nahi elkarrekin biziz
ikas dezagun bakoitzari behar duena goxo ematen.